



Alain Urrutia

Irudien berezko indarra

AHANZURA (2017)

Olioa egurrean eta UV erretxina, 30x25 cm



Xabier Gantzarain

www.argia.eus/artea

Aurtengo martxoan Oier Aranzabalek Zuzeurako egin zion elkarrizketan, artistak hauxe zioen: “Irudiz inguratuta gauden garaiotan, ez dut uste irudiak irakurtzeko gai garenik”. Bere lanekin antzera gertatzen da: ikuslea heldulekurik gabe uzten amorratua da Alain Urrutia (Bilbo, 1981eko urriaren 29a).

Bere hitzetan: “Aurretik existitzen diren irudien irakurketa berriak bilatzen ditut. Honetarako euren errealtate berreraiki eta berezkoa duten istorioa eta narrazio bat eraikitze aukera ezabatzen diet. Itzal joko bat, non ezabatze eta ezkutatzeko tekniken bidez iheskorrak diren irudiak sortu eta iru-

dien xehetasun batzuk nabarmentzen diren.”

Erdiz erdi lortzen du helburua. Bere koadroetako irudiei ikusleak ezin ezarri die hitzik, historiarik, narrazioz: irudi hutsak dira. Iraganik eta gerorik gabeko uneak, eta hala ere historikoak: eraikiak. Izenburuek laguntzen dute batzuetan, zeharka, baina batek ezin dio inoiz oratu bete-betean irudiari, ezin dio eman zentzurik, ez dago lasaigarririk. Irudi hutsak dira. Eta irudi izate horren berezko indarra azaltzen da orduan, eta ikusleak ez du irudia ikusi beste erremediorik. Irudiz inguratuta gauden garaiotan, artistak irudia hartu, narrazioa ezabatu,

eta bere horretan ematen dio ikusleari: begiratu.

Pinturari buruz ari da beti, ezinbestean, irudiak zabaltzeko orduan pinturak zein funtzio duen galdetuz bezala, eta funtzio hori bera aldarrikatuz era berean: hartu astia, begiratu. Edonon-dik hartutako irudiak dira, argazkiak gehienetan, gero bere koadroetara eramaten dituenak, baina ez du inporta hainbeste zer, zer irudi den, zer erakusten duen, baizik eta nola: nola ikusten ditugu irudiak?

Ikuskizuna ez da irudien bilduma bat, irudiek egindako jendeen arteko harreman soziala baizik. Guy Debord. ■